

DIRU-SARRERAK

Gure hasierako diru iturriak 17000 euroko kapitalera heltzen dira, partaideek jarritakoa (Ainarak 6000; Sanaak 7000; Jonathanek 2000; Ibaik 2000). Hainbat gasturi aurre egin beharko diogu (lokalaren alokairua, erreformak, behar bereziko haurrentzako material egokitua, web orrialdea, publizitatea, lizentziak, mailegua...). Jolastokian, dendan eta tabernan egindako salmentak eta eskainitako zerbitzuak izango dira hasierako inbertsioa lortzeko diru sarrera nagusiak.

Bestalde, gure alde egin dezaketen inbertsoreak ere diru sarrera izango lirateke, eta maileguak ere hartu behar dira kontuan (Kutxa...)

Proiektu honetan diru laguntzak erabakigarriak izan daitezke, udalak, diputazioak edota gobernuak emandakoak. Gogor uste dugu, proiektu honen alde aipaturako diru laguntzak eskaintzeak asko merezi duela, horrelako zerbitzu gehiegirik jasotzen ez duen gizarteko sektore bati erantzuna ematen diola kontuan harturik: behar bereziak dituzten haurrei eta hain gurasoei. Haiei erraztasunak eskaintzea izango da helburua.

Gure kalkuluen arabera, lehenengo urtean 40000 euroko lorpenak espero ditugu, 3300 euro hilabete bakoitzeko. Enpresaren lorpenak ezarri, eta jendeak beharrezko diren zerbitzuak ezagutu ahala, diru sarrerak handitu egingo dira, urteko 60000 eurora, estimatzen dugunez.

